

**EUSKALERRIKO GOTZAINEN AURTENGO  
ARTZAIN-ESKUTITZARI BURUZ**

Bildur barik esan daikedulakoan nago gure Gotzainek urtero bialtzen daukuen Artzain-eskutitzak bata zein bestea baiño obeagoak dirala: benetan sakonak, argiak, mamintsuak, gaurko gizonari eta Euskalerriri zuzen-zuzen dagokiozanak... eta beti fedez eta maitasunez idatzitarikoak, gaurko ta gerokoari begiratuz, guztion onerako itzaropenez eta ausardi santuz beterik jokatzen aalegindu gaitezana.

Naiz eta idazki orreik Garizuma-aldirako egiñak izan, urte guztian zear janaritzeko aifia irakatsi mamintsuz beterik dagoz.

Aurtengoaren izena:

**«GIZALEGEZKO BIZITZAREN ZERBITZURA»**

Bost altal nagusitan banandurik jatorku:

- I.- Bizitzari buruzko gaurko kulturaren argi-illunak.
- II.- Galderak eta kezak.
- III.- Bizitza, Jainkoaren doaia eta Giza eginkizuna.
- IV.- Gizakiari dagokion Bizitzaren kultura lortzeko.
- V.- Bizitzaren zerbitzura.

### **Bidea urratzen**

Ondo be ondo esan eban au esan ebanak (Paulo Vign. Aita Santuak): «Jainkoa ezagutzeko gizona ezagutu bear dala; baiña gizona ezagutzeko Jainko-ezageraren premiñan gagozala».

Bai, egia esan, Jainkoa iru Pertsonen komunitatea dan ezkeru, aal dogun neurrian Bera ezagutzeko daukagun biderik egokiena geure pertsonen eta geure komunitateen ezaugarri bereziak aztertzea izango litzateke... Jainkoagan eta gudan dagozan ezbardintasunak argi ta garbi kontuan izanik.

Eta, beste alderditik begiratu, zer esanik ez guretariko bakoitza dan eta guztiok garan misterioaren azalpenaren sustraia ta zentzuna oso-osorik eta bakar-bakarrik geure Sortzaille ta Salbagille dogun Jesukristogan dogula! Gizadiari eta munduari dagokien misterioaren erantzuna Jainkoaren Misterioan aurkitzen dau bere erantzun bakarra ta egokia.

### **Psikologiaren aritik**

Zientzia onek erakusten eta irakasten dauskunez, guretariko bakoitza -eta guztiok batera be- iru bikoteko maillatan osotzen aalegindu bear gara geure muiñ-muiñean zoriontsu bizi gaitazan, au da: norberari dagokion iritzi on eta bikaiñ baten jaun eta jabe izanez eta bizitzeko adorez beterik egonik, berari -bizitzari-zentzun bat damotsagulako.

Ona emen, bada, zoriontsu ta zentzunez bizitzeko osotu bear doguzan iru bikoteko maillak:

#### *1.- Psikobiologikoa*

Itz onetan gerkarren izkuntzako iru itz dagoz josita. Labur esanda auxe izango litzateke bere esan-naia: Garan «gorputz-arimatuaren», edo-ta «arima-gorputzatuaren batasunatzaz eta ondorioetzaz jardutea.

Bikoteko atal biak eroan bear doguz euretariko bakoitzaren izateak eskatzen dauskun bideetatik zear. Adibidez: garan

pertsonari dagokion lez jokatzeko (adimenez eta zentzunez, argiz eta sakontasunez, pozez eta askatasunez...) nai ta naiezkoa dogu geure gorputza zaintzea neurrizko jan-edanen bitartez, geure lo ta atsedenaldiak zainduz, kaltegarri jakona ez emonez, kirol eta «gimnasia» egiñez...

Baiña gorputza bera be aal danik eta obetuen ibilli daiten... oso garrantzitsuak doguz barruko bakeaz eta bakean bizitzea, larregi kezkatu barik, urduritasunetik kanpo ibiltzen ikasiz, lasaitasunez eta patxadaz bizirik. Onela ez bada, leentxoago edo gerotxoago agertuko jakuz or-emen biotzeko, kiriotetako, urdail, sabel eta eztieta ta ainbat gorputz-ataleko gaixoak.

Gotzainen idazkia irakurterakoan ikusiko dozu zer-nolako garrantzia daukan milla onetan neurritz eta jakituriz ibilteak.

### 2.- Psikosoziala

Emen be azalpen labur lez auxe esango genduke: «*ni zuri eskerrak naz neu, eta zu neuri eskerrak zara zeu*».

Bai, ez gatoz eta ez gara jaio bakarrik. Bakarra izateak ez dauka zentzunik. Jaungoikoa Bera be bat da... baiña Irukote batek osotzen dauan batasuna da. Argi dago: bat izateko, edo-ta bat-egiteko, gitxienez bi edo geiago bear dira; bestela, eziñezkoa da bat-egitea.

• Au kontuan izanik, bear-bearrezkoa dot, «Nik neu nai badot izan», besteekin batasunean bizitzea egia bidean, maitasun bidean begirunezko artu-emonak izanez, inñori kalterik egin barik eta euren izate ta berezitasunak onartuz alkarrizketa xamur, zabal eta tolesbakoen sortzaille izanaz.

Oso aberasgarriak doguz Gotzainen eskutitzean oneri buruz egiten diran azalpenak.

### 3.- Psikoerlijiosoa

Ataltxo onetan beti-betiko galderak eta azken baten geien balio dabenak dabe euren tokia: Zer gara? Nok sortu gaitu?

Zertarako? Nora goaz? Bizitza onen ondoren, ezer ba dago? Nok esan dau olakorik? Nok esan lei olakorik?

Eta benetan gaiñera: Zertarako bizitza eriotza bada bere azkena? Zertarako ni ta zu ta geu izatea lurperatzean dana amaitzen bada? Zertarako ainbeste burukomiñ, kezka, naigabe, ilusiño, itzaropen, adore, irripar eta malko... zentzunik-ezak irintsi bear bagaitu? Au onela izanik...

Ementxe datza, ain zuzen be, geure Gotzaiñen mezuaren ardatza:

JAINKOA, «BIZITZA MAITE DAUAN JAUNGOIKOA» DOGUN EZKERO, BERE SEME BAKARRA BIALDU DAUSKU «MARIA BIRJIÑAREN SABELEAN GIZON EGIÑIK» GEURE «BIDEA, EGIA TA BIZITZA» IZAN DAITEN, BERA BAKARRIK DOGULAKO EGIAZKO OSASUN EMOILLEA TA OIÑAZE GUZTIEN ASKATZAILLEA ETA GEURE BIZI BARRIAREN SORBURU ILLEN ARTETIK JAUNGOIKO AITAK BERBIZTU DAUALAKO ESPIRITU SANTUAREN INDARREZ.

\* \* \* \*

PAZKO ZORIONAK GUZTIOI, BIOTZ-BIOTZEZ.

*Kepa Agirre*